egin jueves, 23 de setiembre de 1982

ruptura y resistencia

# etendura eta jarkiera

*En el penúltimo número de Punto y Hora (10-17 septiembre 1982) leo una carta sencilla, pero muy significativa, firmada expresivamente por Erri'ko seme bat. Toma ocasión de la polémica sobre el euskara recientemente mantenida en el diario EGIN, a raíz de la famosa toma de postura de Alfonso Sastre en favor de nuestra lengua nacional; pero más allá del ámbito problemático del euskara, el firmante plantea un tema mucho más global: el de la resistencia civil en nuestro pueblo.*

*Yo mismo, unos días antes, había hecho una pequeña alusión a ella en un artículo de este diario. Y desde luego es un tema que me viene preocupando desde hace bastante tiempo.*

*Es ya hora de debatir abiertamente sobre ella entre las diversas fuerzas políticas, que se aprestan a afrontar la campaña electoral.*

Ba datoz alderdi politikoak berriro: Herriari deika, Herriari eskainka, Herriari eskeka...

Ari dira alderdi politikoak beren ezpatak zorrozten, lehiaketa gogorrerako gogortzen, elkarren kontrako burruka prestatzen. Denok nahasi nahiko gaituzte gudu horretan.

**Urriaren 28 hura**

Urriaren 28an izango dira hauteskundeak, 1978ko urriaren 28 hartatik lau urtetara. Nork ez du gogoratzen Urriaren 28 hura?.

Espainako Konstituzioari buruzko errefenduaren bezperak ziren. EAJk lehen aldiz egin zuen Euskal Herrian "Terrorismoaren aurkako manifestazioarako" deia. Abertzale guztiak ikaratu ziren, aurrenik EAJko basekoak. Egun batzu geroago EAjk berak gozatu nahi izan zuen manifestazioaren helburua: "Por una Euskadi libre y en paz". Erantzun bezala, Herri Batasunak beste manifestazio batetarako egin zuen deia: "Atzo eta gaurko gúdarien alde".

EAJren (eta besteen) manifestazioa, gorabehera txiki batzuren ondoren, lasai burutu zen. HBrena, berriz, kupidarik gabe hautsi eta zanpatu zuen poliziak.

Arratsalde hartan ez zen bi manifestazioen artean elkarjokarik gertatu. Baina Nervioi ibaia gertatu zen euskal abertzaleen arteko etenduraren sinboloa. Alde batean Indautxu; bestean Santutxu.

Euskal lurra zertatu zen orduantxe, eta leize bat irekitzen hasi zen: Erreformaren jokoa jokatu nahi zutenen eta etenduraren burruka burrukatu nahi zutenen artean. Gero ezarri zuten Konstituzioa; etorri zen Estatutoa...Hartu zuen EAJk bere boterea Euzko Parlamentuan, Diputazioetan eta Udaletxeetan; eutsi zion HBk erreformaren instituzioetatik kanpoko burrukari ...Sortu du Eusko Jaularitzak Arkauteko polizia; jarraitu du ETAk gogor Espainiako poliziaren kontrako gerra. Denok dugu gogoan lau urteotako historia xehea; guredarteko etenduraren historia, leize gero eta sakonagoaren eta zabalgoaren historia.

Bitartean bete dira Espainiako gartzelak gure presoekin; Nafarroa bereizi digute; bota digute LOAPA.

**Gerra zibilaren mamua**

Lau urte hauetan Euskal Herriko zeruan hegan ibili dela dirudi gerra zibilaren mamua. Eta aldika-aldika, "Indautxutarren" eta "Santutxutarren" jokabideak gogorragotzen ziren neurrian, batek baino gehiagok ikusi du mamu hori lurrea jeisten.

"Es un ejemplo de lo que podría ser una guerra civil en Euskadi", esan du batek, manifestazio bat ikustean. "La muerte de este hombre presagia una guerra civil", esan du beste batek, heriotza bat kondenatzen. "PNV eta ETA: Gerra zibilaren bezpera?", galdetzen zuen Joxe Azurmendik. Eta beste batean, berak erantzuten: "Nik gerra zibila espero dut".

Nik neuk ere behin gehiagotan sentitu dut gure arteko gerra zibilaren beldurra. Bain uste izan dut, hori hainbeste aipatzea azkenean mamua leize-zulotik ateratzea zela eta elkarren kontra xaxatzea. Gerra zibilaren beldurra berehala bihur bait daiteke gerra zibilerako iritzi. Besterik al da, azken egunotan Arkauteko polizia berria ETAren kontrak fronterara botatzeko asmoa adieraztea?.

Baina okerrena ez da politikaren arteko guru dialektikoa, edota aparatu partidisten artean ukabilka ibiltzea; beldurgarriena da, politikari eta aparatu horiek sarritan beren baseak eta herria gerra zibilera, benetakora, bultzatu nahi dituztela nonbait. Hala ematen du bederen behin baino gehiagotan. Alferrik esaten da, orduan, "se está ahondando la división entre el pueblo vasco", Herriaren hankapetan leizea sakontzen ari baldin badira.

Ba dakit, guzti hori musika zerutiartzat edo probokazio lotsagabetzat hartuko duela zenbait aparatu politikok, hauteskundeetarako bere armak garbitzen ari den bitartean.

Ez naiz ni nerez alderdi politikoen aurkakoa; baina ez ditut nahi, datozen hauteskundeetan gizarte hau askatzeko eta Euskal Herri hau jasotzeko esperantza, agindua eta bideak eskaintzen ez badituzte, eta, alderantziz, botoa emateko deia gerra zibilerako irritzia izango bada.

Indautxutarren eta Santutxutarren artean daude, bai, Estatutua, instituzio-jokoa, erizpide eta jokabide politiko ezberdinak. Baina horien eta Herriaren azpian daude Euskal Herriaren zatikatzea, espetxeratuak, atzerriratuak, torturak, inboluzio zentralista eta kolpista (LOAPA), Euskararen amilbidea, etab., Estatuaren botereetatik ezartzen zaizkigunak. Guzti horiek ari dira Herri honen oinpeko lurra jaten. *Horiek ahazturik, Herri hau* gerra zibilerako erdibanatzen saiatuko badira, ez ditut nahi hauteskundeak.

**Herri-jarkierarako deia**

Lau urte eduki dituzte indautxutarrek eta santutxutarrek beren arrazoiak eta obrak erakusteko. Baina "leizearen politikari" eutsi diote, beren arteko "etendura" areagotuz, beste indarrek Herri honi azpiko lurra jaten zioten bitartean. Ordua da -eta hauteskunde hauek aukera ederra-, lau urteotako engainioak eta desengainioak elkarren aurrean jarririk, "zimenduaren politikari" heltzeko, herria bera herri-jarkiera edo erresistentzia zibilera deituz.

Ez da lehen aldiz egiten dei hau. Lau urteotan, gerra zibiliren garraisien parean bezala entzun dira behin eta berriro erresistentzia zibilerako deiak. Zoritxarrez, hainbat aldetatik sinesmen handirik gabe eta unean-uneko larrialditik ihesegiteko bakarrik edo, egin dira dei horiek.

Urriaren 28 hura prestatzen ari zela bota zuen enbidoa EAJk berak: "... el día que se consiga que ese pueblo (el vasco), en su absoluta mayoría abrace con determinación el objetivo de la libertad de Euzkadi, no harán falta las metrallletas y el propio poder central encontrará, seguramente, más difícil de resolver la *resistencia civil* llevada a sus últimas consecuencias, que la oposición de las armas".

Bapatean esan zion "euki" ETAk: "En este punto estamos de acuerdo. La resistencia civil llevada a sus últimas consecuencias es la forma de lucha más idónea (...) ETA hace público su apoyo, ya desde hoy, a cualquier iniciativa de resistencia civil pacífica que proponga el EBB del PNV".

Baina bi jokalariak "euki" horretan gelditu dira oraingoz; bakoitzak bere kartak eskuetan ezkutatzen dituela; bakoitza bere jokoa jokatzen: Instituzio barruko botere-partizipazioarena, batek; Instituzio kanpoko burruka armatuarena, besteak.

Herriari egiten zaio dei, jarkiera zibila (herri-jarkiera) aipatzean. Eta ez dago zalantzarik azken lau urteotan horretxek hartu duela nolabait erresistentzia zibilaren bidea: Herri-erakundeek, hain zuzen, bideratua dute Euskal Herrian benetako jarkiera zibilaren bidea; baina oraindik horrek ez du lortu forma politiko globalik; hainbat ekintza momentuko eta isolatutan gelditzen da. Horretantxe gelditzen dira, azken lau urteotan, herri-jarkiera predikatuz entzun ditugun beste hainbat lagun eta talderen oihu eta deiak ere.

**Urriaren 28 hau**

Orain arte gerra zibilaren mamuak erresistentziarako deiak ia ito egin baldin baditu, datorren 28ko hauteskundeek izan beharko lukete gerraren beldurra uxatzeko eta erresistentziaren konfiantza suspertzeko.

Jarkiera zibila ez da Erreforma edo Etenduraren kontrakoa; eta bai gerra zibilaren kontrakoa. Lau urte hauk sortu duten *fatalismoa*ren, etsipenaren eta beldurraren kontrakoa da jarkiera zibilaren bidea.

Datozen hauteskunde hauetxek izan beharko lukete, ez alderdi politiko bakoitzak bere aukera herriari saltzeko bakarrik eta bai herria lantzen ari den jarkiera zibilari egitura eta itxura politiko global hori emateko. Hauteskundeak ote dira, ordea, sasoirik onena, jarkiera zibilaren mugimendu herritarraren *inguruan eztabaida* suspertzeko?

Ezetz esango luke hainbatek. Hauteskundeek alderdietako gidarien aukera zabaltzeko bait dira! Horiek, berriz, botere bila doaz, herriari botoa eskatuz. Herria ez, politikari profesionalak izan ohi dira protagonistak hauteskundeetan, ia denek bestelakorik adierazten badute ere.

Baina lau urte igaro ondoren, jarkiera zibilerako oinarri finkoak eta arrazoi handiak ditu herriak, alderdien eta politikarien programa partidisten eta joko dialektikoen gainetik.

Egun gutxi barru kaleratuko dizkigute gure alderdiek eta koalizioek beren slogan distiratsuak eta programa apainduak. Baina ez daukate ixiltzerik ez ezkutatzerik Herri honek herrijarkierarako dituen arrazoi handi hauek: Euskal Herriaren zatiketa eta Nafarroa, Autodeterminazio-eskubidea eta LOAPA, Euskararen heriobidea eta hemengo "glotofagia", terrorismoaren aurkako legea eta torturak, etab. etab.

Herri honi bakea ekartzeko bidea jarkiera edo erresistentzia zibilarena da, orain dela lau urte (urriaren 28 haren inguruan) ongi esan ziguten bezala: EAJk eta ETAk.

Orain beste urriaren 28 honen aurrean gaude. Zain!

Paulo AGIRREBALTZATEGI

# al señor juez de instrucción núm. 14

Roberto Ferrero Díaz, joven vizcaino de 23 años y miembro de esta Asociación, se encontró el pasado día 6 de septiembre de 1982 con la desagradable sorpresa de ser detenido hacia las 6 de la madrugada, cuando salía de trabajar, y posteriormente ser trasladado a la prisión provincial de Basauri, donde aún se encuentra en la actualidad, por ser reclamado en la Causa 24/80 del Juzgado de Instrucción núm. 14 de Barcelona.

Los hechos que han motivado su detención no parecen estar justificados, dado que en dicha causa se hallaba en libertad provisional desde junio de 1979, y a partir del 31-1-80 y hasta el 31-7-82, en que salió en libertad condicional, ha estado en prisión por otra causa diferente. En el Juzgado de Barcelona, al que se han trasladado directamente familiares de Roberto, no han dado ninguna explicación alegando desconocer el asunto, y puesto un miembro de esta asociación en contacto telefónico con dicho Juzgado, sólo se le ha indicado que estaba en situación de búsqueda y captura por no ser localizado en su domicilio y hallarse procesado, sin que quisieran detallar la fecha de dicha orden de búsqueda y captura dado que ello supondría buscar el expediente y tenían mucho trabajo.

Sobre la anterior base, si la orden de búsqueda y captura fuese anterior al 31-7-82 significaría un grave error judicial y pondría de manifiesto la descoordinación existente entre los diversos juzgados, lo que aún se agravaría por el hecho de que en aquella fecha fue puesto en libertad condicional, lo cual lleva implícito que no existía pendiente ninguna orden de búsqueda y captura contra él. Si por contra, dicha orden fuese posterior al 31-7-82, cosa extraña dado el periodo estival de vacaciones en agosto, supondría un evidente error material ya que en el domicilio de Roberto, sito en Basauri, y que es el que, según sus propias manifestaciones, debe constar en el Juzgado de Barcelona, no se ha recibido notificación ni requerimiento alguno, y sí, en cambio, ha comparecido las veces reglamentadas en el mes de agosto ante la Audiencia Provincial de Bilbao, sin que nada le fuese notificado.

Todo lo anterior, así como que desde el 2-8-82, es decir, dos días después de salir en libertad condicional, estaba trabajando diariamente en la empresa "Transportes Ortega" de Basauri, en funciones de mozo de carga y descarga en el supermercado de Merca-Bilbao, fue comunicado por Roberto al Juzgado de Barcelona el 6-9-82, y reiterado el 17-9-82, en cuyo último escrito anunciaba su decisión de iniciar una huelga de hambre y sed a partir del próximo día uno de octubre, caso de que antes no hubiera sido puesto en libertad provisional, sin que hasta la fecha haya recibido contestación alguna a los mismos.

Ante todo ello, y dada la gravedad que supone toda medida de privación de libertad, más aún cuando proviene de hechos acaecidos hace más de tres años y existiendo por medio un serio intento de reintegración plena a la vida civil, hace que nos veamos obligados a denunciar públicamente tal situación, y pedir del Juzgado de Instrucción Núm. 14 de Barcelona que clarifique las razones que han llevado a la detención de Roberto Ferrero Díaz y la fecha de tal orden, y que ante todo lo expuesto en este escrito se digne decretar de inmediato su libertad provisional, todo lo cual se dice en la villa de Bilbao, a veinte de septiembre de mil novecientos ochenta y dos.

«SALHAKETA»
ASOCIACION AYUDA A
PRESAS Y PRESOS

